

# BILBORAKO ETA BILBON AURRERA EROATEKO EMAKUMEZKOEN FUTBOL-TALDEEN PROIEKTUA

## EMAKUMEZKOAK FUTBOLEAN HASTEKO UNITATEA (EMAKUMEZKOEN FUTBOL ESKOLA)



U.D. LA MERCED



S.D. SAN IGNACIO

### LAGUNTZAILEAK





## BILBORAKO ETA BILBON AURRERA EROATEKO EMAKUMEZKOEN FUTBOL TALDEEN PROIEKTUA

### EMAKUMEZKOAK FUTBOLEAN HASTEKO UNITATEA (EMAKUMEZKOEN FUTBOL ESKOLA)

## Bilbok neskak futbolean hasteko proiektua izango dau.

U.D La Merced eta S.D San Ignacio klubek Bilboko nesKentzat Bilbon futbola bultzatu nahi dabe.

Bizkaiko emakumezko biztanleriaren artean gero eta arrakasta handiagoa dau emakumezkoen futbolak. Kirol hau egiten daben emakumezkoak arraroak izateari itzi deusie eta emakumezkoen artean kirozaletasun hau izatea be ez da bitxitzat jotzen. Athleticen nesken taldeak aurrera egiteak eta honeen garaipenek, Bizkaian izugarri lagundu dau; bai kantitatean (federazio fitxen zein eskola kirolaren kopuruan) bai kalitatean (gero eta jokalaria gehiago eta prestatuago daben emakumezkoen futboleko lehiaketen mailan).

Dakigunez, ez dago nesken eta mutilen arteko konparaketa egiterik. Gatxa da, goian aipatutako parametroak bardintzea. Baina neskak futbolera hurreratzeak, eragin handia izango dau emakumezkoek kirol hau egin dagien, erronka garrantzitsua izango da. Neska eta mutilen arteko bardintasuna erdietsi behar dogu.

## EMAKUMEZKOAK FUTBOLEAN HASTEKO UNITATEA

U.D. La Merced eta S.D San Ignacio klubak, oinarri- futbolean ibilbide luzea dabe. Hasieran mutilen taldea eben, baina denborak aurrera egin ahala mutilen eta nesken taldeak dabez. Ibilbide historiko honetan nesken futbola bultzatea erabaki eben, nazioko, lurraldeko eta gazte mailan taldeak sortuz. Emakumeek gizonezkoen baldintza berberak dabez: baliabide, instalazioetara sartzeko aukera, entrenamendu eta partiduen ordutegiak...

Bai ibilbide honetatik, bai azken urteetako esperientziatik abiatuz, Bilbon, bertako eta inguruetako neskek futbolean jolasteko proiektua aurrera erodateko erabaki estrategikoa hartu da. Horrela, kirol hau egin nahi daben eta noiz, non eta zelan ez dakien bilbotar neskei, kirol eta arlo pertsonalaren garapenaren lagundu ahalko jake.

Etorkizunera begira egiten dan eskaintzak, ardatz nagusi bi dauz:

\*Futbolean jolastu gura daben eta non egin ez dakien Bilbo eta inguruko neskek klub bi honeek eskaintzen deuten proiektuan parte hartzea.

\*Bilboko nesken futbolaren alde apustu eginez, **KIROLEAN HASTEKO UNITATEA (Emakumezkoen Futbol Eskola)** sortzea. Klubok, informazioa kirol honetan hasi gura daben guztiengana heltzen ez bada, emakumezkoen futbol proiektua osotuko ez dalakoan gagoz. Gogoratu, oinarritzko helburu bi lortu nahi dira:

a) **KIROL ARLOAN:** goi mailako taldeak osotzeko jokalariai prestatu.

b) **ARLO PERTSONALEAN:** etengabe jasaten dabezan aldaketa fisiko, fisiologiko eta garapen emozionalean agrapen integrala aurrera egiten lagundu.

## U.D. LA MERCED ETA S.D. SAN IGNACIO

### PROIEKTUAREN ZEHAZTASUNAK

Ekimen barri honek helburu zehatza dau. Hiru mailatan Bilboko eta inguruko neska guztiei zuzendutakoa:

**EMAKUMEZKOAK FUTBOLEAN HASTEKO UNITATE**  
(EMAKUMEZKOEN FUTBOL- ESKOLA): Hemen, AURRE-BENJAMIN, BENJAMIN eta ALEBIN mailako neskek egongo dira, lehiakorra ez dan mailakoa eta jatorrizko klub edota ikastexeakaz bateragarria dana.

**ESKOLA FUTBOL:** Eskola-kirolaren egituraren arabera jokatuko dabe, BENJAMIN, ALEBIN ETA HAURRAK.

**FUTBOL FEDERATUA:** KADETE, GAZTE, LURRALDE ETA NAZIO kategoriak.

Aurkezten dogun proiektu honek, adin eta futbol-zaletasun bereko neskek harremanetan egotea lortu gura dau.

Era berean, neska honeei etorkizunean euren futbol prestakuntzan jarraipena izango daben bermea emongo deutsegu, hau da, haur, kadete, gazte eta amateur mailetan, azken hiru honeek futbol 11koak diralarik.

Dana dala, helburu nagusia futbola atsegin daben neskek pertsona eta kirolari moduan hezi gura doguz, beti be ikastetxean parte hartuz. Hau da, ahal dan neurrian, egungo taldeko lehiaketakaz bateragarria izango dan emakumezkoen futbola lortu gura dogu. Neskek, eskolako taldean zein **FUTBOLEAN HASTEKO UNITATEAN (Emakumezkoen Futbol Eskola)** lan egin ahal izango dabe eta hau ezin danean, Kirolean Hasteko Unitatean ezagututako beste neska batzuekin parte hartzeko aukera izango dabe.

## PROIEKTUA GOGOKO DABEN PERTSONENTZAT

**NON IZANGO GARA:** Artxandako udal- zelaiko kirol-instalazioetan eta San Ignacio Kiroldegian.

**NOIZ EGINGO DABE LAN NESKA HONEEK:** Eskola mailan, zapatu arratsaldeetan eta domeka goizetan. Eskola eta federatu mailan, kategoriaren arabera.

**NON IZANGO GARA:**

Web- orrialdea:

**[www.udlamerced.com](http://www.udlamerced.com)**

E-maila:

**[club@udlamerced.com](mailto:club@udlamerced.com)**

**[sd-sani@hotmail.com](mailto:sd-sani@hotmail.com)**

Telefona:

**U.D. LA MERCED: 659134350**

**S.D. SAN IGNACIO: 647765162**

Nahi izanez gero,

ARTXANDA edota SAN IGNACIOko zelaietan izango gara.

## EGUTEGIA

### URTARRILA-OTSAILA-MARTXOA:

- \*Proiektua ikastetxeetan ezagutarazi.
- \*Interasatuta egon daitekezan nesken informazioa jaso.  
(Datu bilketaren fitxa osotu).

### OTSAILA:

- \*Proiektuan sartuta dagozan federatutako futbol taldeen diseinua (talde kopurua, kategoriak, jokalariak, entrenatzaileak...) egin.

### MARTXOA:

- \*Bildutako informazioagaz erabakiak hartu.
- \*Lankidetzaren dokumentuaren diseinua egin.

### APIRILA:

- \*Proiektua bideragarria bada, behin betikoa osatu.
- \*Zuzendaritza Taldeetan onartu.



Ap. De Correos 424  
48080 Bilbao  
Tfno: 659134350  
E-mail: [club@udlamerced.com](mailto:club@udlamerced.com)  
[www.udlamerced.com](http://www.udlamerced.com)



Plaza Levante s/n  
48015 Bilbao  
Tfno: 647765162  
E-mail: [sd-sani@hotmail.com](mailto:sd-sani@hotmail.com)  
[www.saninazio-sd.es](http://www.saninazio-sd.es)

## DATU BILKETA FITXA

KATEGORIA/CATEGORIA:.....

IZENA/ NOMBRE: .....

ABIZENAK/APELLIDOS: .....

NAN/D.N.I: .....

JAIOTEGUNA/ FECHA. NAC.:.....

IKASTETXEA/ CENTRO

ESCOLAR:.....

HELBIDEA/ DIRECCIÓN:.....

P.K./ C.P.: ..... TLF: .....

E-MAIL:.....

OHARRAK/ OBSERVACIONES:

 **Bilbao Kirolak**  
Instituto Municipal de Deportes